

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

deskalabru

Gure **deskalabruaren** ostean, Klemente Elustondo lur jota geratu zen. Ni, ez horrenbeste.

panpoxa

Eta gero, **panpoxa** horien atzetik inguruetako zapaburu guztiak etorriko dira, buztana tente, arrapaladan!

kafre

—Ze **kafrea** zaren. Zu bulegoan ondo ezkutatuta geratzen bazara, Shreck, arrakasta ziurtatuta egongo da.

biraoika hasi

Isilpean, garai modernoan kontra **biraoika** hasi zen.

ihardetsi

—Ez engainatu zure burua **ihardetsi** zidan berak.

elbarri

...ez zenekien **elbarri** nengoenik —amaitu zuen Lukas Montxonek esaldia, zorrotz—. Bizitza oso traidorea izaten da batzuetan.

artaburu

Artaburu halakoak, bileran diru-kontuei buruz hitz egitea ahaztu zitzaizkien.

totelka

...pasa egin zaigu gure tarifak komentatzea... —onartu zuen lotsatuta, hitz **totelka**.

purrustada

Beste askotan bezala, Klementek nire ametsak zapuztu zituen bere azken **purrustadarekin**.

txilio

...oihukatu nien urrutitik, ernegatuta. Eurek ez zioten nire **txilioari** kasu putarik egin.

ahari

Gau hartarako beste **ahari** bat aurkitu omen zuen berarekin ohean topeka egiteko.

kanpaia jo

Sofa goxoan etzanda, bakarka, aspaldiko partez bost baten kontrako borroka urdurian murgildu, zakila ondo astindu, **kanpaia jo**, eta bapo erlaxatu nintzen.

mardul

Profesionalki, bere karreraren puntu gorenean zegoen. Soldata **mardula**, dirua barra-barra.

tenore

Eta ez dugu hura akabatzeko **tenorean** egon zitekeen etsai hipotetikorik antzeman.

ahobero

“Baina **ahobero** nazkagarri bat naiz!”, izan zen bere azken errematea.

mikaztu

Dutxatik atera nintzenean umore ona di-da batean **mikaztu** zitzaidan [...] nire tripak kurba biribil xamarra hartu zuela sumatu nuen.

upel

—Dedio, Bala, azkenaldian garagardo gehiegi sartzen dituzu sabeleko **upela** koitaduan! Obelixek baino okerrago bukatuko duzu!

idisko

Itxuran ez nintzen gimnasioetako **idisko** anabolizatuak bezain gihartsua...

andana

Korrika hasi eta Autonomia kalea slalom konplikatu eginez gurutzatu nuen, alde batetik bestera zebilen jende **andana** hala moduz saihestuz.

artega

Josu Aginaga **artega** mugitu zen berriro bere teknokrata-jarlekuan. Bazirudien bat-batean gorbatak lepoa estutzen ziola.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

itaunketa	Eta bai, itaunketa hantxe amaitu nuela erabaki nuen.
zartako	Tamalez, ateari emandako zartakoagatik nirekin haserretu zela sumatu nuen.
setati	Baina Klemente setatiari jaramon egin, hurrengo astelehenean goizean goiz ohetik altxatu, bulegora etorri, eta txosten izugarri aspergarria idatzi nuen.
potroak berotu	...bera konturatu egin zen oraingoan urrutiegi joan zela, potroak ederki berotu zizkidala...
kikildu	—Barka. Pasatu egin naiz — kikildu zen orduan.
simaur	Askotan pasatzen zarela nirekin! Simaurra bezala tratatzen nauzu, hutsaren hurrengo naizela pentsatzen duzulako, akaso.
tamalez	Farandularen munduan aldaketak izate dira ia eguneroko lege. Tamalez , nik ondo ezagutzen dut ze garratza, ze mingotsa den bizipen hori.
pertxa	—Egin proba, zuk daukazun pertxarekin , euroz euro agian aberastu egingo zara!
baritono	Berrogeita hamar urte inguru zituen gizon bibotedun eleganteak bere burua aurkeztu zuen, baritono ahotsaz...
gizalegez	—Tira, zuek ere ez zaudete batere gaizki San Mames gloriosoaren itzalpean - erantzun zuen legegizon eleganteak gizalegez ...
ziplo	Anbizioaren, boterearen eta diruaren gailurretik ziplo erori nahi zuela ematen zuen.
balazta	...Juan Antonio Iztueta kontseilari ahaltsua maldan behera zihoala zuzenean, amildegira, ziztu bizian eta balaztarik gabe.
pikukeriak	Segituan bukatu ziren bien arteko pikukeriak . Klementek boteprontoan luzatu zion lehenengo galdera serioa...
erregutu	Ostiralean Luziari hots egin diot, gauerdiko sexu-zita bat erregutzeko . Porsako hartzera bidali nau, inolako kontenplaziorik gabe.
piura	—Ni banaiz ohean kamasutra praktikatzeko geratzen zaizun aukera bakarra [...] —egin dit barre aurpegira Irene demonioak ni piura harekin ikusi orduko.
mendi magal	Gauaren iluntasunean etxe osteko mendi magaletik oinez ailegatu eta etxe inguruko bi metroko harrisia saltatu zuen?
so geratu	Edurne Balari so geratu zaio, haren erreakzioaren zain. Detektibeak badaki denbora agortzen ari zaiela, itaunketa laster bukatu beharko dutela, hain zuzen.
hanka egin	Akabo. Mundu hori ez da nire gustukoa, zenbat eta lehenago hanka egin , hobeto.
enegarren	Azken hilabeteetan Errontegiko zubia enegarren aldiz zeharkatzen duela iruditu zaio.
hala bedi	—Baldintza bakarra jarriko dizut: ez dut hildakoei buruz hitz egin bahi. — Hala bedi . Zortzietan pasako naiz zure bila?

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

aieneka	Nire amak Kosme deitzen ninduela."Nire Kosme txikia", halaxe esaten zuela behin eta berriro hasperen artean, aieneka .
astoak ferratzera	"Bai zera, astoak ferratzera bidaliko zaitu!", ihardetsi diot neuk nire buruari. "WhatsApp idatziko diot agian? Edo hobe e-maila?", dudatu dut gero.
bedeinkatu	...bizitzaren ipar-orratza, atzo aurkitu eta atzo bertan afari tamalgarriaren bukaeran galdutako ipar-orratz bedeinkatua berreskuratzeko.
berna	—Balaguer –komentatu dit–, gauza bat behintzat argi esango dizut: Jose Mari Bakerok ere ez zituen halako berna potenteak!
pixel	Txundituta nauka bere abilitadearekin. Pixel bakoitza tratatu du, banan-banan.
adats	Emakumearen adats luzeak ilehoriak dira, dudarik Gabe.
automata	—Anda la ostia! –atera zait berriro automata baten antzera.
suspertu	Alderantziz, suspertu egin da, biziberritua dirudi: —Ja! Toreatu egin nahi gaitu, baina geroz eta hurbilago gaude!
pikardia	Eta zu, konkretuki, izugarri poztu beharko zinateke notizia hori jakinda –seinalatu dit Klementek pikardiaz .
liluragarri	Gure Star System propioa. Euskal izar autoktonoen unibertso liluragarria .
tunante	Egia esango dizut, niri tunante horiek ez zaizkit pitorik interesatzen.
bihozkada	Arrazoa duzu. Nik ere bihozkada hori daukat. Ez dut uste telebistako inork Alex Aginaga hainbeste gorrotatzeko arrazoirik zuenik...
peskiza	Zergatik zentratu nahi dituzten euren peskizak ekoiztetxearen inguruan...
taxuzko	"Urruti geratu dira telebistak taxuzko filmak ematen zitueneko garaiak!", pentsatu du Balak.
gordin	Baina zoritxarrez, errealitate gordinak eztanda egin zion eskuen artean
aztoratu	—Hipotesi aldrebesa, alajaina! – aztoratu da Bala—. Nola jakin duzu Ane Badiolarena?
sententziatu	"Baina Lukas Montxon gorpil-aulkian lotuta dago, ostia, eta hori definitiboa da!", sententziatu dut azkenik, eta puntu pelota.
antzu	Eskerrak Klemente isilik geratu den! Horrela behintzat ez dugu eztabaida antzuetan murgilduta jarraituko
patrika	Sakelakoa atera zuen patrikatik , elkarrizketa laburra izan zen.
antipodetan egon	Gure aurrean agertzen zen gizon elbarrituaren antipodetan zegoen ustezko hiltzaile baten atzetik bidali gaitu.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen: Nota:

sasikume	—Badakizu zer? —oldartu da Klemente orduan—. Notizia txarra daukat sasikume horrentzat. Bere jolas nazkagarria deskubritu dugu!
uztartu	—Ene, Bala. Oraintxe uztartu ditugu puzzlearen pieza guztiak! —baloratu du Klementek.
erraiak	Nik jada askatu ditut nire erraietako demonio guztiak. Ea zuek orain nola gobernatzen dituzuen zuen deabruak!
erkide	Berarekin zorretan dagoen erkide bat lokalizatu nahiko du.
amorrur	Eta amorrur begiratuko nauela nabarituko dut, txiste errazak ez diolako inolako graziaz egingo.
ahantzi	Telebistan ere laster ahantziko dute Gisasolaren izena, defuntuaren ordezkari bat guapoagoa eta listoagoa izendatuko dutelako.
panparroikeria	Deskuiduan, mundu guztiaren aurrean lurrera eroriz gero, barregarri geratuko nintzela pentsatu nuen, eta hobe nuela panparroikeriak alde batera utzi.
zirimiri	Isil-isilik iritsi zen maiatza hiriburura, zirimiri giroan.
ahalguztidun	Nork ez du ezagutzen Kutxabaneko kontseilari ahalguztiduna ?
iradoki	Abokatu bibotedun eleganteak iradoki zuenez, Iztueta jauna ez zen bere emaztea bezain zentzuduna eta zuhurra.
aharrausi	Balak logura aurpegia zeukan oraindik, aharrausi egin zuen.
zirrara	Albisteak zirrara eta ezinegona sortu du euskal gizartean, eta orduak pasa ahala, geroz eta gehiago dira...
debozio	Ganorazko detektibeak baldin baziren, iker zezatela debozio hutsagatik.
buru-belarri	...eta inolako arrasto konkreturik ez dagoen arren, zuk kontu honi buru-belarri heldu nahi diozu, ezta?
ugazaba	Ze itxura hartu zenion ekoiztetxeko ugazaba berriari?
erronka	—Dirudienez, porrutik ateratzeko erronka Josuri tokatzen zaio orain.
deliberatu	Badugu Produkzioak enpresako enplegatuei buruz ikertzen hasteko ordua dela deliberatu dugu.
gandor	Esti oso pertsona bitxia da: estetika punkya, larruzko txupa beltza, gandor koloretsu tente-tentea eta parafernalia guztiak.
goraipatu	...Alexek noizbait bere balioa goraipatu zuela, eta ekoiztetxean orokorrean denek ondo hitz egiten dutela berari buruz.
narru sendo	—Joño, hemen dator ezagutzen dudan tiporik narru sendo eta lotsabakoena!

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kokolo	Mozolotuta geratu naiz ari begira, <i>teenager</i> kokolo baten antzera, zer esan jakin gabe, mutu.
bolada	Boladarik onenean, ia hirurogei pertsona egon ginen kontratatuta. Laster ez da bat bakarra geratuko.
huskeria	Azkenengo sasoiari, gainera, telebistan huskeriak besterik ez zizkiguten eskaini.
laudorio	Baina ez diot halakorik esan, laudorioetan azkarregi hasten banaiz izutu egingo ote dudan beldurrez edo.
boteprontoan	Balak Klementeri emandako ongietorri kamikazea, halaxe bota dio, boteprontoan eta anestesiarik gabe.
goitizen	Argazkilari famatua bihurtu zenetik, ordea, <i>Tarantino</i> da bere goitizena .
sekulako pepino	Ordenagailua piztu du, sekulako pepinoa , Mac Pro.
zehatz-mehatz	—Zer behar duzu, zehatz-mehatz ? —galdetu du Mikel Lezetak.
ezusteko	Eta kristo, oraingoan ere ezusteko itzela jaso dut!
hots egin	Klementeri hots egin behar diot.
katramila	—Buelta asko eman dizkiot katramila honi, Bala.
arranguratuta	—Kaka! Zergatik ez diguzu lehenago esan? —leporatu dio Balak, arranguratuta .
postumoa	Alfonso Urrutia militarra hil ondoren emititu beharreko elkarrizketa postumoa .
urkatu	...guri dagokigunez Sotillosek bere burua urkatu zuen Artxandan!
papar	—Abisatuta zeuden, esan nizun ez zigula inork paparrean dominarik zintzilikatuko! —gogoratuko diot.
xaxatuta	Nire barruko mamu gaiztoek xaxatuta , lan itzela egin nuen, lan isila, eta nire gorputz herdoildua berpiztu nuen.
leituko	...Lukas Montxonek inprimatutako orrialde bat aterako du, eta e-mail laburra hitzez hitz leituko du kamera aurrean...
herdoildua	Parkeko bakardadean, atrakzio herdoilduan , burdinazko langa batetik zintzilikatu zuen bere burua.
ausiki	Neurri handi batean Alberto Sotilloso gertutakoaren erantzulea nintzen, baina kontzientziak ez zidan aparteko ausikirik egin.
sentibera	Xabier Leteren ahotsa entzungo dugu, Xalbadorren heriotzan kanta sentibera abesten.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zerraldo

Bultzada eman eta sei segundoren buruan nire adiskide zintzoa amildegi azpiko haitzetan **zerraldo** zegoen.

higuin

Gauerdian, etxeke komunean, damututa, botaka egin nuen, **higuina** sentitu nuelako nire aurpegia ispiluan islatuta ikusi nuenean.

nardagarri

...Ernesto Gisasola lapur zikin **nardagarri** bat zela jakin nuen.

bapo

...eta horrenbestez Gisasolak organigramaren gorengo mailan **bapo** instalatuta jarraitu zuen.

epitafioa

Beste mundutik bidalitako **epitafioak**.

sarjentu txuskero

Ze laguntza? Zure tankerako **sarjentu txuskeroa**?

galeper

Bi **galeperak** iritsi zirenean aparteko misteriorik gabe grabatu nuen euren sartu-irtena.

sarraskia

Zergatik egin ote zuen halako **sarraskia**?

duda zipitzik gabe

Seguru. **Duda zipitzik gabe**.

arbuiatua

Umetan gutxietsia eta **arbuiatua**.

bihozbera

...guapoa, elegantea, erromantikoa, samurra, **bihozbera**.

sodomizatu

Eta gero, gorputzean haginka egin, eta **sodomizatu** egiten zituen.

antologiko

Baina hori bai, hanka-sartze **antologikoa** egin zenuen!

astapotro

Jode, Txutxo, ze **astapotroa** zaren!

sabeleko pinporta

...**sabeleko pinporta** ikusi bezain pronto gorputzari astindu gogorak emanaz gero [...] ez nintzen bihurtuko Olentzero tripontziaren lehengusua.

potrojorran egon

Martin Balaguer Poza kaleko bulegoan **potrojorran zegoen**...

kranpoi

Soka eta **kranpoiekin** prestatutako mekanismoan urkatuta aurkitu zuten.

idolatratu

Nik **idolatratu** egiten ditut. Ezingo nuke eurak gabe bizi.

besamotz

...Espainian musulmanak balira, denak **besamotz**...

biharamuneko

...eta egunkariko **biharamuneko** titular eskandalosoa irudikatu zuen...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

lepo aritu	...azken hiru egunetan lanean lepo aritu zela adierazteko edo.
igarri	...ni iritsi orduko, ez nuen ezer arrarorik igarri .
zapuztuta	...defuntuaren eta alargunaren arteko harremana erabat zapuztuta zegoen aspaldi.
nagia	Nagia galanta, horixe zara zu!
harroputza	Oso gizon harroputza omen zen.
burua zuritu	... zuritu zuen Elustondok bere burua .
zimeldua	...goroldioak jandako atrakzio zimelduan , Alberto Sotillosen hilotza aurkitu zuten burdinazko langa batetik zintzilik.
hilotza	...goroldioak jandako atrakzio zimelduan, Alberto Sotillosen hilotza aurkitu zuten burdinazko langa batetik zintzilik.
tentatu	Konklusioa, Klemente? — tentatu zuen Balak.
perka	Nahi duzu perka bat ematea, artaburu?
umezurtz	Umezurtz geratutako gizonak ez zeukan aparteko abilitade fisikorik.
barrabaskeria	Elizondo kapitain-buruak barrabaskeria galanta antolatu zuen Irrintzi Operazioan.
temati	Baina bezero tematia tokatu zitzaigun parean, antza.
esatari	Esatariak bat-batean irakurri zuen lehenengo albisteak ustekabean harrapatu zituen bi detektibeak.
zantzu	Zantzu guztien arabera, Gisasola itota azaldu da...
kontseilari	...Kutxabankeko kontseilariaren bizimoduaren alderdi ilun gehienak...
ahapeka	Kontsolatuta geratuko gara, eta bide batez ez diogu inori kalterik egingo, konfesatu diot ahopeka ...
harrera	Arkauteko akademian ezagutu ginen, orduko agintariei egindako harrera ofizialean.
ihar	Klemente Elustondok, ordea, lekuz kanpo zirudien. Txikia, iharra , eta betaurrekoekin.
antigoaleko	Txori-flauta horrek behin aitortu egin zidan Sherlock Holmesen antigoaleko nobelak irakurri ondoren erabaki zuela polizia bihurtzea.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

meteoriko	Rock izarrek jaurtitako suzirien antzera, ibilbide meteorikoa egin genuen. Atera kontuak, ni laster sarjentu izendatu ninduten.
tankera	Baina laguntza beharko duzu orduan. —Ze laguntza? Zure tankerako sargento txuskeroa?
latz	Kolpe latza jaso zuen Elustondoren auto-estimua, besteentzat ia ikusezina bihurtu zela baieztatu zuelako.
mela-mela eginda	Euria ari zuen, zirimiria baino dezente gehiago. Mela-mela eginda iritsi zen bulegora.
oldartu	—Kontxo, bazen probetxuzko zerbait egiteko garaia! —E, txipiroi, harrotu gabe oldartu zitzaion Bala-.
edadetua	...hoteleko pasilloan, dotore jantzitako emakume edadetua eta hura baino dezente gazteagoa zirudien gizona logelatik atera ziren, aseta...
hamaika	Seguru Bizkaian hamaika enpresa dituen gizon inportante horrek izango duela ordenagailu bat eskura, ala?
soseguz	Goitik behera aztertu ninduen, soseguz , eta gero behetik gora eman zidan errebasoa. Azkenean, aurpegira begira geratu zitzaidan, oso serio.
umeldu	Lukas Montxoni begiak gorritu eta umeldu zitzaizkion, baina zirrara emozionala dominatzen saiatu zen.
ozpinduta	—Lasai, nire lana garaiz egingo dut —erantzun nion apur bat ozpinduta —.
belarrondoko	Baina azkenean ez nintzen animatu, badaezpada, agian iritsi ahala belarrondoko galanta astinduko zidalako.
atundu	Prakak astindu, ilea atundu eta kotxera bueltatu nintzen.
aje	Hamaika eta erdietan, dutxa hotza hartu ondoren, ganoraz jantzita eta ajea halamoduz uxatuta, Martin Balaguerrek bere logelako ordenagailua piztu zuen.
tetrikoa	“Aurtengo apiriletik, gizajo hori haritz-egurraz egindako hilkutxaren jabea da”, izan zen Balak bere buruari egindako hausnarketa tetrikoa .
aldarte	—Jode, Txutxo, ze astapotroa zaren! —erantzun zion Balak arnasa berreskuratu zuenean, eta barre egin zuten biek, aldarte onean.
arlote	—Beti izan naiz arlote samarra pronostikoak egiten! —aitortu zuen Balak lotsatuta.
bigantxa	Good morning, Vietnam! Goizeko bederatziak. Bigantxa baten antzera altxatu nintzen ohetik salto azkarra eginez, ieup!
simaurre	—Badakizu zein den arazoa? Askotan pasatzen zarela nirekin! Simaurrea bezala tratatzen nauzu, hutsaren hurrengoa naizela pentsatzen duzulako...
estirpe	Neguriko estirpeek bedeinkatutako familia ahaltsuaren ondorengo bakarra.
lekaime	Gaztetan lekaime izatearekin amesten zuen kristau deboziokoa.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

txima	...galtza bakero hautsiak eta Che Guevararen kamiseta zulatua zeramatzan gazte txima-luzea gitarra goxo-goxo jotzen ari zen.
perdigoi	Martin Balaguer naiz. Bala. Berrogeita bi urteko perdigoi galdua.
zuhur	Klemente Elustondo praktikoagoa da, zuhurragoa .
babolio	Utzidazu azaltzen, babolio .
bezero	Bezeroa? Zer bezero? –zirikatu ninduen ergelak.
damututa egon	Eta portzierto, gaur damututa egon beharko zenuke dagoen eguraldiarekin gabardina ez eramateagatik.
larrutan jo	Hiru ordu eta erdi basajaun baten antzera larrutan jo eta sua, leher egin arte.
mesanotxean	Hala gogoratu zuen goizean ospa egin aurretik mesanotxean idatzita utzi zuen nota irakurri nuenean.
balentria	Deskuiduan bezperako nire balentria sexualak inbidia eman bazion...
kapela	...buruko detektibe kapela imajinarioa bere aurrean errespetuz kenduta.
magal	Bigarren fitxa bukatu ondoren, koaderno magalera jaurti nion Klementeri.
iskanbila	Baina imajinatzen duzu ze iskanbila sortuko litzatekeen...
txorimalo	Noizean behin txorimalo horiek antzeman eta harrapatzen laguntzen dugu.
kopetilun	Gizon kopetilun haren aurrean, bat-batean balak lotsa puntu bat sentitu zuen...
zakar	Barka lehen telefonoz zakar samarra izan banaiz.
madarikatu	Kotxe istripu madarikatu izan zuen errua.
labar	Arrigunagako labarretatik salto egin eta bere buruaz beste egin zuela.
adore	Alex Aginagak ez zeukan halako erokeria egiteko inolako arazorik. Eta adorerik ere.
marmarrean	...leporatu zion Klementek bere buruari marmarrean , gogaituta.
alproja	Ordurako Klemente alprojak goitik behera errepasatu zuen nik goizean goiz idatzitako txostena.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

sos	Baina axola ez bazaizu nahiago dut nire izerdiarekin irabazitako sosak jasotzea.
aberia	Aberia latza egin nuen bizkarrezurrean.
kaskar	Zuk ikerketa serioa enkargatu zenigun, eta ez zure gustura moldatutako nobela kaskar bat asmatzea!
miatu	Miatu beharreko detaile guztiak erreparatu ditugu behin eta berriro.
bortitza	Elustondok urteak zeramatzan otoitz egin gabe, batez ere haurtzaroarekin lotutako pasarte bortitza deskubritu zuenetik.
doluminak	Tartean, Lehendakaritzatik ere doluminak bidali dizkiete hildakoaren familia eta lagunei, eta baita une latzak pasatzen ari diren telebistako langile guztiei.
lekuko	Ez dakigu zehazki zer gertatu den, ez dakigu zehazki ze ordutan izan den, ez daukagu lekuko bakar bat ere...
ernegatu	—Kaka, Bala — ernegatu zen—. Hau konplikatzen ari da.
zelatan	Arrigunagako haize-errotan, zuk beltzez jantzitako emakume ilehori bat ikusi zenuen zuri zelatan .
zital	Eta hemendik aurrera kasu zital honek burukomin dezente emango dizkigula.
lizun	Izan da Balaren lehenengo pentsamendu lizun hura agertzen ikusi duenean.
tertulia	Bazkalostean tertulia lasaian egon gara, elkarri konfidentziak egiten.
gogoeta	Eta hala gertatzen baldin bada, orduan bai, kasu hau izugarri konplikatuko zaigu -borobildu du gogoeta.
gupida hartu	Aspaldiko adiskideari gupida hartuta edo.
begi zulo	Klemente ere sekulako begi-zuloekin azaldu da, zazpiak hamar gutxi aldera
kaput	— Kaput! —esan du Balak, eta keinu adierazgarria egin du, telefonoz alferrik ari direla seinalatz.
ganorazko	Ganorazko poliziak garelara erakusteko aukera.
inkisidore	Txotxolo inkisidore lorezaina, edozein modutan.
latz	Egun latzak izango dira Arrasate aldean, egun ilunak.
monotonia	Bien bitartean Bilbon bizitzak eguneroko martxa jarraituko du, krisialdiaren monotonia tristean murgildutako gizon eta emakumeak kalean gora...

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

fetxatu	Astebete lehenago Venezuelan fetxatua , antza, baina ez du bidaltzailearen izenik ekarriko.
zenital	...aulki horren atzealdean, gelaren amaieran, argi zenitalarekin nabarmendutako atea ikusten da.
hutsal	Ez zaituztet aspertuko nire haurtzaroko ergelkeria hutsalekin .
kateatu	Hamaika proiektu kateatu nituen bata bestearen segidan, zerrenda luzea osatu arte.
orno	...nik bizkarrezurreko bi bertebra hautsi nituen, orno lunbarrak.
zurrutada	Lukas Montxonek botila hartu, tapoia kendu, eta zurrutada bat edango du, zurrutada luzea.
abian jarri	...banekien ibiltzearekin batera programa eder hori abian jarritz gero, gizarteak bere magalean gozo-gozo hartuko ninduela berriro...
egitismo	Ernesto Gisasolari egitismoa gustatu egin zitzaion, segituan nabaritu nuen.
printza	Besteak beste, ilusio printza bat eman zidalako, eta horri esker momentuz nire barruko demonioak nolabait gobernatzea...
hasperen egin	(Hasperen egin ondoren) hil ondoren, edonora joaten naizela ere, nire koadro guztiak eramango ditut gogoan! den-denak!
eskalafoi	Boterearen goiko eskalafoi etara iristeko programatua.
ekoiztetxe	Ekoiztetxe aren egoerari buruz galdetu diot zuzenean.
kalamidade	Kalamidadea , itxura denez bere anaiari gertatutakoa ez zaio pitorik inporta.
pattar	...Elustondo eskuzabalak pattar kopa bat eskatu dit, izotz bakarrarekin, eta behingoagatik, bazkalostean tertulia lasaian egon gara, elkarri konfidentziak.
makulu	...belaunak izorratuta dauzka aspalditik, eta makuluaz lagunduta ibiltzen da beti.
parafernalia	Esti oso pertsona bitxia da: estetika punkya, larruzko txupa beltza, gandor koloretsu tente-tentea eta parafernalia guztiak.
gainbegiratu	Ordu berean Klemente Alhondigara ailegatu da, Golem zineetako kartelera gainbegiratu du...
remakea	...bere garaian Robert Redford-ek egindako bertsoaren remakea .
txutxu-mutxu	Algortako mihigaiztoen zurrumurru, txutxu-mutxu eta esamesei jaramon eginez gero, beraz, hortxe dago aspalditik bilatzen duten arrastoa.
kuku egin	Ekoiztetxera sartu aurretik, Xantiri kuku egitea erabaki dut.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

dedio	Jaungoikoak mundu honetara espresuki niretzat bidalitako aingeru guardakoa, dedio !
mozolotuta	Mozolotuta geratu naiz hari begira, teenager kokolo baten antzera, zer esan jakin gabe, mutu.
teenager	Mozolotuta geratu naiz hari begira, teenager kokolo baten antzera, zer esan jakin gabe, mutu.
pott egin	Eta txikieria merke horiekin nekez segi genezakeen aurrera. Azkenean pott egingo dugu, kito.
euforiko	Euforiko samar atera naiz handik. Euforiko samar itzuli naiz Bilbora.
galtzaundi	Nire errua da, Klemente Elustondo bezalako galtzaundi bati kasu egiteagatik!
eskribau	Eskribaurik txukunenak ere idatzi kaxkarrak egiten ditu noizean behin.
txist	— Txist , ojo! Gu ez gara ikerketa honetan diruagatik ari. Eta denoi komeni zaigu egia argitzea, konpai.
dibagatu	Klemente dibagatzen hasi da orduan, buruan jiraka dituen ideiak ordenatu nahian edo. Eta nik arretaz jarraitu dut bere parlamentua...
trufatu	—Txikito, DVDak paleolitikoak dira — trufatu zitzaion Bala—, eta idazkariak ere bai!
jaurti	Bigarren fitxa bukatu ondoren, koaderno magalera jaurti nion Klementeri.
tripa	Dutxatik atera nintzenean umore ona di-da batean mikaztu zitzaidan [...] nire tripak kurba borobil xamarra hartu zuela sumatu nuen.
bebingoagatik	...Elustondo eskuzabalak pattar kopa bat eskatu dit, izotz bakarrarekin, eta bebingoagatik , bazkalostean tertulia lasaian egon gara, elkarri konfidentziak.
kamasutra	—Ni baldin banaiz ohean kamasutra praktikatzeko geratzen zaizun aukera bakarra, akabatuta zaude...
zipitzik gabe	Halaxe bota zituen sei izenak. Seguru. Duda zipitzik gabe.
neskatan egin	Berrogeita bi urteko Olentzero potloek ez dute arrakastarik izaten neskatan egiten dutenean!
xentimo	Zenbaki gorritan sartzeko puntuan nengoan! Xentimorik gabe!
poker aurpegi	Poker aurpegiz jarraitu zituen nire azalpenak.
tolon-tolon	Puxika gloriosoak ere tolon-tolon mugitu zitzaizkion bere alkandora estuaren azpian.
pottoko-pottoko jarri	Eta zuri komeni zaizu ejerzizio pixka bat egitea, pottoko-pottoko jarriko zara bestela.